

IRAKASLE ORDEZKOAK: ARAUDI BERRIA ARGITARATUTA

2012ko irailaren 11ko EHAAn

Hainbat zirriborro aztertuta, kontuan hartu gabeko milaka alegazio aurkeztu eta gero eta 2 urtetan zehar itxurazko negoziazioan ibili ondoren, Hezkuntza Sailak argitaratu du ikastetxe publikoetan ordezkapenak egiteko zerrendak kudeatzen dituen araudi berria.

Hauexek dira berrikuntzarik deigarrienak:

- **Zerrenda bakarra** mantentzen da. LHko erlijioako irakasle ordezkoak sartzeko (elizaren bedekuntzaren, noski).
- **Perfilik gabeko** irakasleak onartzen dira hainbat espezialitateetan. Lotsagarria!
- Geografikoki **zonaldeak** planteatzen dira ordezkapenak betetzeko, hau da, lurraldea baino esparru txikiagoetan. Hala ere, lurralde batean ere (ARA, BIZ, GIP) izena eman behar da zonalderen batean inor ez egotekotan, bertara joateko.
- Desagertuko da uko egiteko eskubidea **50 km** baino urrunagoko lanaldi murrizketetan(!).
- Zerrendetan sartzeko aukera: azkeneko **LEPa gainditu dutenek** lanpostua lortu gabe, birbaremazioen bidez edo zerrendak irekitzen direnean.
- Etorkizunean Administrazioak kontuan hartu ahal izango du EPEko nota zerrendak kudeatzeko. Neurri hau azken Lan-Hitzarmenetik dator.
- Zerbitzu guztiek ez dute berdin puntuatuko eta "jarduera zaileko edo interes bereziko" hainbat lanpostuk aparteko puntuazioa izango lukete (kasu hauetan hirukoiztuko da)
- Administrazioak birbarematze prozesu bakoitzean **zerrendaren garbiketa** egingo du: hiru urtetan zehar lanik egin gabe egon direnak eta hizkuntza-eskakizunik edo prestakuntza pedagogikorik egiaztatu ez dutenak kanporatuak izango dira. Baita 5 ikasturteetan Hezkuntza Sailaren zerbitzura lanik egin ez duten pertsonak ere.

Ez da hau ordezkoek behar zuten araudia: atalen bat egokia bada ere (zonaldeak, zerrenda bakarra...), onartezinak dira beste batzuk: perfilik gabek onartzea, 50 km-ko muga desagertzea, EPEren nota kontuan izatea... Garbi dagoena hau da: araudi berri honekin ez dira inolaz ere hobetzen ordezkoen lan-baldintzak eta ez da beren prekaritatea konpontzen.

2012-09-13

STEE-EILAS

PUBLICADA LA NUEVA NORMATIVA PARA SUSTITUTOS Y SUSTITUTAS

BOPV del 11 de septiembre de 2012

Después de más de dos años de falsas negociaciones, de varios borradores, y de decenas de alegaciones no tenidas en cuenta, el Departamento de Educación ha publicado la nueva normativa que gestiona las listas de candidatos y candidatas a sustituciones en centros públicos.

Estas son las novedades principales:

- Se mantiene la **lista única**. Entra por la puerta falsa todo el profesorado sustituto de religión de primaria (con la bendición de la iglesia, claro).
- Se acepta **profesorado sin perfil** en algunas especialidades. ¡Vergonzoso!
- Se definen **zonas geográficas** en cada provincia para realizar las sustituciones. Sin embargo hay que estar en la lista de alguna de las provincias (ARA, BIZ, GIP) para cubrir sustituciones en aquellas zonas donde no hubiera nadie apuntado.
- Desaparecerá la posibilidad de renunciar a una sustitución con reducción de jornada situada a más de **50 km** de distancia (!).
- Acceso a las listas: si se ha **aprobado la OPE** sin conseguir plaza, en la rebaremación o por apertura de listas
- A partir de las próximas OPEs la administración puede tener en cuenta la nota de la misma a la hora de ordenar las listas de sustituciones. Esta medida procede del último Acuerdo laboral.
- No todos los servicios puntuarán lo mismo. Los realizados en "puestos de especial dificultad o interés" puntuarán tres veces más que el resto.
- Se **excluirán** de las listas a aquellas personas que no hayan prestado servicios durante 3 cursos consecutivos y no acrediten perfil lingüístico o formación Pedagógica. También aquellos-as que a lo largo de 5 años consecutivos no hayan realizado servicios para el Departamento de Educación.

No es ésta la normativa que necesitaba el personal sustituto. Si algún apartado es adecuado (zonas, lista única...), otros aspectos son inaceptables (entrada en las listas sin perfil, desaparición de los 50 km., nota de la OPE...). Lo que está claro es que con esta normativa no mejoran las condiciones laborales del colectivo ni se soluciona su precariedad.

2012-09-13

STEE-EILAS